ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 22. zenbakia | 2022ko ekaina

# erenteria

## HERRI BIZIA



# KIROLA, DENENTZAT

## *Instalaciones deportivas, usarlas es cuidarse*

*Kirol instalazioak* 3. ORR. >>

*Berriro elkarrekin!* 6. ORR. >>

*Herri Bizia* 8. ORR. >>

*Oarso Irriak* 12. ORR. >>

*Errenteria Bizia* 15. ORR. >>

# GARBIGUNE MUGIKORRA GARBIGUNE MÓVIL

**Etxean sortutako hondakin arriskutsu eta toxikoak biltzeko zerbitzua,** astean behin, zure auzoan. Garbigunea 8:00etan utziko dute beheko taulan zehaztutako lekuan, eta 22:00etan jasoko dute. Egun osoan zehar onartutako hondakinak bertan uzteko aukera egongo da.

**Sistema de recogida de residuos peligrosos y tóxicos domésticos,** una vez a la semana, en tu barrio. El garbigune se colocará a las 8:00 en el punto que se especifica en la tabla de más abajo y se recogerá a las 22:00 horas. Se podrán depositar los residuos admitidos durante todo el día.

| **Astelehena** / Lunes | **Asteartea** / Martes | **Asteazkena** / Miércoles | **Osteguna** / Jueves | **Ostirala** / Viernes | * **Larunbata-Igandea** Sábado - Domingo |
|---|---|---|---|---|---|
| Biteri Txiki - Zumardia | Sorgintxulo | Fuentepelayo plaza | Iztieta anbulategia | Markola Etorbidea | |
| * Zamalbideko aparkalekua | Pontika | Pablo Sorozabal | Gaztaño | Fanderia Errota | Galtzaraborda kiroldegia |

* **Kokapen eta egun berriak** - Nuevas localizaciones y días



**Garbigune mugikorrean utzi daitezkeen hondakinak:**

- Etxeko olioa (Itxitako ontzian)
- Kotxeko olioa (Itxitako ontzian)
- Aerosolak eta lakak
- Zartaginak eta lapikoak
- Etxeko hondakin arriskutsuak (pinturak, bernizak, disolbatzaileak, kolak...)
- Fluoreszenteak
- Bonbilak
- CDak/DVDak
- Inprimagailu tonerrak
- Telefonoak
- Kable elektrikoak
- Pilak eta sakelakoen bateriak
- Etxe tresna elektriko txikiak (plantxak, kafeterak, txigorgailuak...)

**Se podrán depositar los siguientes residuos:**

- Aceite de cocina (en envase cerrado)
- Aceite de coche (en envase cerrado)
- Aerosoles y lacas
- Sartenes y cazuelas
- Residuos peligrosos domiciliarios (pinturas, barnices, disolventes, colas...)
- Fluorescentes
- Bombillas
- CDs/DVDs
- Tóners de impresora
- Teléfonos
- Cables eléctricos
- Pilas y baterías de móviles
- Pequeños electrodomésticos caseros (planchas, cafeteras, tostadoras...)



ERRENTERIA UDALA

Errenteria EKO aktiboa

ingurumena.errenteria.eus



# Instalaciones para vivir mejor



***Errenteria cuenta con un amplio surtido de instalaciones deportivas. Aparte del uso libre e individual de estas infraestructuras, se ofertan más de 150 cursillos para errenteriarras de todas las edades. Con la Kirol Txartela, se puede disfrutar de toda la oferta a precios accesibles.***

Errenteria es un pueblo con una gran variedad en lo que se refiere a instalaciones deportivas. El Ayuntamiento entiende que facilitando a la ciudadanía una forma de vida activa y saludable, se ahonda en el bienestar de cada errenteriarra, y por lo tanto, en la salud general de la villa. Un dato: aparte del uso colectivo o individual que se puede hacer de las instalaciones municipales, en las zonas deportivas de la villa se pueden hacer más de 150 actividades organizadas, que se ofrecen a personas de todas las edades.

Para disfrutar de todo ello, la forma más efectiva y económica es la de hacerse abonado de dichas instalaciones, es decir, sacarse la llamada Kirol Txartela. Usando esa tarjeta se puede acceder a todas las instalaciones deportivas de la villa a un precio muy económico, y a su vez, se podrá acceder gratuitamente a la mayoría de los cursillos y actividades que se ofertan. Ya son 10.000 los y las errenteriarras que tienen la Kirol Txartela, es decir, un %25 de la población total.

Errenteria cuenta con todo lo que hace falta para practicar deporte, siempre con la intensidad deseada por cada persona. Por ejemplo, en Fandería, aparte del estadio de futbol y del frontón Agustina Otaola, se encuentran la piscina y la zona de sauna y masaje; a todo ello se le une el gimnasio, así como las pistas deportivas exteriores (pista de tenis, y campo de futbol pequeño). Además, en verano, cuenta con una amplia zona verde que es para uso de quien acude a la piscina. En Galtzarabor-





*«Instalazio horiek ez daude bakarrik erdigunean. Auzoetan ere askotariko kirol azpiegiturak daude»*

da está la segunda piscina cubierta, y ¿cómo no?, también está la cancha polideportiva que tantos momentos de gloria, y alguno de decepción, ha traído al pueblo. Esta cancha es utilizada tanto por equipos de primer nivel, como por grupos amateur y por el alumnado de Eskola Kirola. A ello se le unen el gimnasio y los zonas habilitadas para cursillos grupales.

Por su parte, Beraun también ofrece muchas opciones para, dicho coloquialmente, sudar. En el listado se encuentran el recién remozado estadio Mikel Odriozola, y el frontón anexo, que cuenta con una cancha polideportiva. También en Beraun están las piscinas de verano que tanto atraen a errenteriarras y habitantes de pueblos cercanos: los abonados de las instalaciones deportivas de Errenteria tienen acceso gratuito a esa instalación

Quien acuda a todas estas instalaciones puede acceder a un amplio abanico de cursillos y actividades de salón, siempre dirigidos por el equipo profesional de estas infraestructuras. Estas formaciones están dirigidas a personas usuarias de todas las edades, y cuentan con un amplio horario. Quien prefiera ejercitarse en solitario también puede utilizar el servicio de asesoramiento que ofrecen las y los monitores, solicitando entrenamientos personalizados. Del mismo modo, el servicio de fisioterapia ayudará a realizar correctamente todo tipo de ejercicio, y si fuera necesario, recuperarse.

Pero todo no queda en dichas zonas. Errenteria cuenta en todos los barrios con zonas deportivas exteriores de uso libre. Estas son frontones, canchas polideportivas, o pistas de skate y de padel. «Las instalaciones deportivas no están situadas en exclusiva en el centro. Entendemos que tenemos que llegar a todos los barrios», aseguran desde el Ayuntamiento. Son de destacar las zonas de libre uso cubiertas que se encuentran en los centros de Koldo Mitxelena, Cristobal Gamon y Gaztaño (las dos primeras se pueden utilizar fuera del horario escolar).



## Deporte es salud

Una de las premisas que guía al Ayuntamiento a tener unas instalaciones deportivas completas y de calidad es ofrecer a todo el mundo alternativas para que mediante la actividad física den pasos para vivir de modo más saludablemente. «No entendemos solamente el deporte como medio de salud corporal. Es muy importante para nuestra mente. Errenteria es grande y por lo tanto, el conjunto de las infraestructuras que tenemos es amplio», afirman desde el ente municipal. Por ejemplo, en el contexto de las restricciones COVID-19 que impidió utilizar al máximo rendimiento las instalaciones deportivas, el Ayuntamiento lanzó una campaña especial para que ciudadanos y ciudadanas hicieran ejercicio físico a coste cero: «Nos pareció importante hacer salir de casa a todas esas personas que por una causa u otra dejaron de hacer actividad física. No se trata solamente de que el cuerpo esté bien. También nos importa la salud mental».

El deporte también es una forma de socializar. «Con el deporte se pueden dar pasos en ese sentido», remarca el Ayuntamiento: «Es muy importante estar con gente. Pero a raíz de la pandemia hay personas a las que les cuesta salir de casa, no se socializa tanto. Eso está pasando en todos los ámbitos. Creemos que con el deporte, entre otros, se puede tomar aire y si es en compañía, mejor.»

*«Askotariko kirol instalazioak ditu Errenteriak, eta herritarrek 150 jarduera ezberdinen artean aukera dezakete»*

## ABONATU IZATEKO AUKERAK, ETA KIROLGUNEEN ORDUTEGIAK

**Egun, Errenteriako kirol instalazioetako abonatu izateko, edo beste era batera esanda, Kirol Txartelaren jabe izateko lau modu nagusi daude. Honakoak dira:**

- Banakako abonua: hilabeteko kuota 24,54 eurokoa da.
- Familia abonua: hilabeteko kuota 45,65 eurokoa da.
- 65 urtetik gorakoen abonua: hilabeteko kuota 12,16 eurokoa da.
- Gazteen abonua: hilabete kuota 18,39 eurokoa da.

**Galtzarabordako eta Fanderiako kirol guneen ordutegiak:**

- Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik 22:00etara zabalik.
- Larunbatetan: 09:00etatik 21:30era zabalik.
- Igande eta jaiegunetan: 09:00etatik 14:00etara zabalik.

**Nola egin abonatu?**

- Galtzarabordako eta Fanderiako instalazioetan.
- Zu! herritarren arreta zerbitzuan
- Internet bidez: beone.es/centers/errenteria





# Berriro, el









# lkarrekin!





*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***
**»**

## HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



«

## *Barandiaran parkea, aurrera*
*Se ha iniciado el proceso para analizar los suelos y redactar el plan de excavación.*



»

## *Lenguas vivas*
*Herriko DBH3ko ikasleek munduko hizkuntza gutxituen gaineko lanketa egin dute.*





«

## *Ikasleentzat eta auzotarrentzat*
*Cristobal Gamon Ikastetxea ya cuenta con patio cubierto para uso lectivo y vecinal.*

## ‘Yo soy responsable, ¿y tu?’

*Gauzak ondo egiten dituzten txakurren jabeei eskertu, eta ardura eskatzeko kanpaina abian da.*







## Arnasgunea zabalik

*San Marcos, espacio lúdico-cultural abierto.*

## Presentado el plan

*LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko lau ardatzeko plana aurkeztu dute.*



## Denera irekita

*En mayo se llevó a cabo 'Ateak zabalduz', la fiesta de los clubs de personas jubiladasde la villa.*





## 'Zazpitan', al chupinazo

*Angel Blanco Egoskozabalek irabazi du madalenetako kartel lehiaketa 'Zazpitan' lana aurkeztuta.*

## Reorganización en Fanderia

*Fanderia auzoko oinezkoen segurtasuna hobetzeko lanak egin dira, auzotarren ekarpenak aintzat hartuta.*



# //udal taldeen mezuak//

## POR UNAS MADALENAK FELICES Y LIBRE DE AGRESIONES

[PSE-EE] La vuelta a la normalidad después de dos años es lo suficientemente importante para expresar las ganas de disfrutar y vivir que todos tenemos y que en las fiestas patronales se van a manifestar en las calles y plazas de nuestra villa.

Estamos muy contentos por la elección de Ekintza Bibe (a propuesta del PSE-EE) y la asociación Arrats como homenajeados en nuestras fiestas. Dos entidades sociales que hacen una gran labor y que representan lo mejor del gran municipio que somos y de su comunidad.

Asimismo, queremos hacer un llamamiento a todos los ciudadanos para que disfruten de estas fiestas, y que las mismas, sean vividas desde el respeto, tolerancia, solidaridad e igualdad. Deseamos también unas fiestas no politizadas para que la convivencia entre diferentes no se vea afectada y se respete la dignidad de las víctimas del terrorismo.

Gora Errenteria!
Gora Madalenak!

## BIZI MADALENAK!

[EAJ-PNV] Bi urte luze igaro ondoren, Madalenak iristear daude eta festa giroa nabari da dagoeneko. Egun bereziak izango dira errenteriarrentzat are gehiago azken bi urteetan jaiak ezin izan ditugulako ospatu. Jai egun hauek, lagunekin, familiarekin, tradizioez disfrutatzeko, kontzertutara joateko eta ekitaldiez gozatzeko aukera emango digute. Madalenak disfrutatzeko dira, guztiok disfrutatzeko egunak. Egun onak izan daitezen, bizi ditzagun Madalenak errespetuan. EAJ-PNVk indarkeria matxistarik gabeko jaiak nahi ditu, eraso sexistarik gabekoak eta indarkeriak gabekoak oro har.

Dos años después, las Madalenas están a punto de llegar y ya se nota el ambiente festivo. Serán especiales para los errenteriarras, más aún por no haber podido celebrarlas estos dos últimos años. Estos días de fiesta nos darán la oportunidad de disfrutar de las tradiciones, de ir a los conciertos y de disfrutar de los eventos con los amigos y la familia. Las Madalenas son para disfrutar. Vivamos las Magdalenas con respeto, desde EAJ-PNV queremos unas fiestas libres de violencia machista y sin agresiones sexistas.

## IRITSI DIRA MADALENAK!

[Elkarrekin] Bi urte luzeren ondoren, gure Madalen jai maiterik gabe are luzeago egin zaizkigunak, udari pozez egiten diogu aurre jaietako ohiturak bueltatuko direla badakigulako; txupinazoa, danborradak, kontzertuak, kartela, omenaldiak...

Queremos hacer una especial mención a las entidades homenajeadas este año, Arrats y Ekintza Bibe. Todo nuestro reconocimiento, admiración y cariño por la labor que hacen para ayudar a personas en las difíciles y distintas realidades de sus vidas. El apoyo unánime de la corporación a esta distinción es la representación simbólica del que os brinda el pueblo de Errenteria. Zorionak!

Eta aurten ere, jaiak errespetuz, anaitasunez eta berdintasunez disfrutatzera animatzen zaituztegu, gure Madalenak herri anitz eta eskuzabal honen erakusleihoa ere badira.

## HAURREN HERRIA

[EH Bildu] OarsoIrriak elkartea ezaguna da herriko bizilagunen artean. Euskara, parekidetasuna, inguru-giroarekiko begirunea eta elkarkidetasuna dira, besteak beste, aisialdia lantzen duen elkarte honen printzipioak eta hamaika ekimenetan ikusi ditugu.

2011ean sortua, ibilbide oparoa egin dute, orain arte, iraultza txiki honetan. Iraultza, haurrak kontuan hartzea eta erdigunean jartzea iraultzailea baita. Ez gaude ohituta haurrekin pareko begirada baten bitartez eseri eta beraien beharrak eta grinak entzutera.

Entzute honetatik haurrena ere baden Orereta/Errenteria bat eraikitzen dihardute. Erritmoak eta espazioak beraien beharretara egokituz. Espazio publikoa okupatuz eta erreklamatuz, haurrak bigarren mailako pertsonak ez direla adieraziz eta bisibilizatuz.

Jarrai dezazuela bide hori urratzen urte askoan, bidelagun izango gaituzue!

# OarsoIrriak, guztientzako «sormen kaos bizia»





*2011tik haurren desioak eta nahiak bideratzeko lanean dihardu OarsoIrriak egitasmoak. Euren jarduna, batez ere, jai giroko ospakizunetan ikus daiteke, baina sukaldeko lana funtsezkotzat dute ikusten denari forma emateko.*

U2011. urtearen bukaeran Oarsoaldea osatzen duten Oiartzun, Lezo, Pasaia eta Errenteriako zenbait norbanako elkartzen hasi ziren, askotariko ahotsak gune berdin batean elkartuz, asmo komun batekin: aisia berrasmatzea. «Haurrak, helduak, batzuk guraso ginen, beste batzuk hezitzaile, kultur arloko eragile, sortzaile...», gogorarazi du Nora Barroso errenteriarrak, hastapenetako aniztasun hura gerora OarsoIrriak izena hartuko zuenaren sortzaileetako batek.

Bakoitzak bere ibilbidea, bere lana, familia, gustu eta ametsak zituen, baina denak batzen zituen aisialdi mota berri bat martxan jartzeko gogoak. «Hori nola gauzatu hausnartzen hasi ginen», azaldu du Barrosok, «eta hortxe biltzen ginen, batzuetan parkeetan, bestetan Merkatuzarren, etxeren batean, haurrak eta helduak elkarrekin...». Hori bai, espazio berdinean eta etengabe elkarrengana joaz. «Oso dibertigarria eta oso kaotikoa zen. Eta egun ere horrela izaten jarraitzen du».

## Zer-nolako aisialdia

Egitura zehatzik gabe, etengabeko egokitze prozesu horretan, nolako aisialdia nahi zuten erabaki zuten: euskalduna, herritarra, irekia eta parte-hartzailea. «Ez genuen nahi kontsumitzen den aisialdia, baizik eta gure beharretatik sortuta eta, gure baliabideekin, gerturatzen ziren pertsona horiek gonbidatuko zituen aisialdia».

Egitasmoak kide-sare oinarrizko bat badu ere, beti dituzte ateak zabalik parte hartu edo ekarpena egin nahi duen ororentzat. Are:

«Aisialdi horretan taldekoak ez diren pertsonak daudenean beti saiatzen gara horiek egitasmoaren parte sentiaraztzen». Hori horrela izanik, badira konpromiso, maiztasun eta geruza ezberdinetan euren hondar alea jartzen duten lagun aski. Eta horiek ere badira OarsoIrriak familiaren parte.

*Familia* kontzeptua bera hartu du ahotan errenteriarrak. Izan ere, OarsoIrriakeko kideek hitz hori nola ulertzen duten «ezohikoa» gerta litekeela aitortu baitu. «Gure lagunak ere sartzen dira gure familian; hitz horren ulerkera zabalagoa dugu».

Multzo horietan, *familiaka* ere antolatzen dituzte inoiz euren jarduerak. Esate baterako, bereziki «maite» duen bat aipatu du Barrosok: Errenteriako Inauteritako egitaraua. 2014az geroztik desfilea osatzen dute; lehen bi urtetan batukada herrikoia egin zuten, 2016an txarangada eta 2017tik aurrera OarsoIrriko Musikala osatzen dute. «Eta hor bai», zehaztu du, «familia/kuadrilla bakoitzak bere koreografia egiten du, eta urtero komuna den koreografia daukagu eta guztiok batera dantzatzen dugu. Ibilbide polita burutzen dugu herrian zehar».

Bukaeran, Xanti eta Maialenekin egiten dute dantza. «Oso hunkigarria izaten da; bereziki, haurrentzat».

Dantza talde horietan hainbat belaunaldik egiten dute bat. Barrosorenean, adibidez, hiru dira. «Amonak ere dantzatzen du! Eta urte batean *drag queen* ere bilakatu zen!».

Beraz, txikiek ere sortzen dute jaia. Eta ez modu metaforikoan, 2015etik egiten baitizkiete euren ekarpenak Madalenei Haurren Jai Batzordean. Organo hori nola sor-

## TAMBIÉN DECIDEN EN MADALENAS

La primera Comisión de Fiestas de los Niños y Niñas se reunió en 2016, con el propósito de crear un espacio donde los y las más pequeñas pudieran juntarse para hacer sus aportaciones en la organización de las Madalenas. «Desde OarsoIrriak se crean espacios para que las más pequeñas y pequeños del pueblo puedan dar su opinión y tener acción directa en la vida del pueblo junto a sus familias», ha aclarado Nora Barroso, miembro de OarsoIrriak.

Una de las peticiones de los y las jóvenes fue que querían participar en la organización de las fiestas del pueblo, «y así llevamos haciéndolo desde el 2016», ha echado la vista atrás Barroso, «a través de su comisión de fiestas».

Dicho grupo suele preparar dinámicas específicas para que los jóvenes de entre 6 y 12 años puedan sacar a la luz sus ideas y exponerlas, con el fin de poder llevarlas a cabo durante las fiestas de la villa. «Las personas mayores tratamos de no hablar mucho», ha explicado la errenteriarra, «no queremos acaparar el espacio que ellos pueden tomar; a veces hablando, y otras veces mediante dibujos, por ejemplo».




*OarsoIrriak hace una propuesta de ocio para disfrutar en familia y alejada del consumismo*





## *Las propuestas de las niñas y los niños hacen que los límites de las personas adultas se difuminen*

tu zen azaldu du Barrosok: «Urtean zehar zenbait bilera egiten genituen, eta horietan haurrek esaten ziguten eurek ere zer-nolako jaiak nahi zituzten adierazi nahi zutela». Erabakitasunez ekin zioten hori egi bihurtzeari.

### Helduen mugak lausotuz

Jaiak antolatzeko batzorde txikian, helduek dinamizatzaile lana egiten dute, «saiatzen gara asko ez hitz egiten», eta joko eta jarduera ezberdinei esker buruan dituztenak mahai gaineratzen dituzte gaztetxoek ahoz batzuetan eta paperean, marrazkien bidez, beste zenbaitetan.

Hasiera batean txikien burutazio askok helduen begietan egingarri ez badirudite ere, horiei zein forma eman hausnartu besterik ez dela egin behar ongi ikasia dute OarsoIrriak kideek. Adibide bat eman du herrikideak: «Zein motatako herria nahi zuten galdetzen genien askotan haurrei, aisialdia, ezinbestean, eraikuntza horren parte baita. Haietako batek bota zuen koloretako elurra nahi zuela». Ezinezkotzat joko luke edonork ideia hori, baina OarsoIrriakek posible egin zuen: elkarlanean herriaren maketa bat sortu zuten, eta elurra koloretakoa zen alegiazko Errenteria horretan. Ahalegin horien guztien ondorio dira, besteak beste, Txupinazo Txikia eta jaietako txikien abestia.

«Nahi batetik hasi eta hori errealitatera eramateko mila buelta eman behar dizkiozu», aitor egin du, «baina sorkuntzaren kaos horretan, azkenean, espero ez duzun hori bihurtzen da emaitza». Etengabeko ikasketa prozesua da OarsoIrriak. «Haurrei hitza emanda helduon mugak lausoagoak bihurtzen dira; eta batzuetan, baita desagertu ere».

Botere harremanak alde batera uzteko espazioak sortzea da oinarria, eta horrek, ezinbestean, anabasa dakar askotan. Baina hor dago, hain zuzen, gakoa. Hala esan du Barrosok. «Gurean sortzen den sormenezko kaos horren barruan joaten gara moldatzen eta sortzen. Sorze-kaos bizia da OarsoIrriak».



## Argazki zaharra

1991eko maiatzaren 25ean inauguratu zuten Beraungo estadioa, gerora Mikel Odriozola Estadioa izendatua. Iazko irailean berrinauguratu zuten ia osoki berritu zutelako. 1980Ko hamarkadan, ordea, hondarrezko futbol zelaiak izan ziren bertan, batez ere auzotarren ekimenez eraikitakoak. Hamarkada horren erdialdekoa da ondoko irudia, eta bertan ikus daitezke han zeuden bi joko eremuak, alboan futbitoko kantxa zutela. Dutxak Beraungo auzo elkartearen egoitzan zeuden. Nabarmen aski aldatu da zonaldea ordutik.

## Ba al zenekien...

En Errenteria viven *7.048* personas menores de *19* años

De la población total del municipio casi el *%18* tiene menos de *19* años, según los datos censales disponibles a *31* de diciembre de *2021*. Es decir, de las *39.230* personas que habitan en la villa *7.048* nacieron entre los años *2002* y *2021*. Quienes tienen entre *0* y *4* años en Errenteria son *1.242*, *590* chicas y *652* chicos. Del mismo modo, en el tramo que va de *5* a *9* años encontramos *1.695* personas, mientras son *2.016* quienes tienen entre *10* y *14*.



## Txoko bat

Txirrita parkea edo 'Unibertsolandia' 2020ko uztailaren 20an inauguratu zuten. Herriko tokirik deigarrienetako bat da, batez ere, haurrentzat. Berezi izate horrek batetik eremuarekin berarekin du harremana, hiru adin tarteko haurrentzako diseinatuta baitago unibertsoa ardatz duen aisia azpiegitura. Baina benetan aparta egiten duena da herriko haurrek erabaki zutela horren diseinua, 2017an abiarazi zuten parte hartze prozesu baten bitartez.

ERRENTERIA
UDALA

# EZ BAZAUDE EROSO, ERASOA DA.

**Inork ez du eskubiderik nola sentitzen zaren zalantzan jartzeko. Eraso baten erantzulea erasotzailea da. Gertatu bazaizu deitu iezaguzu. Madalenetan eta ondorengo egunetan (uztailaren 21etik 31ra) 24 orduko telefonoa aktibatu dugu. Errenterian, erasorik ez.**

**Nadie tiene derecho a cuestionar cómo te sientes. La persona responsable de una agresión es la que agrede. Si te han agredido llámanos. Hemos activado el teléfono 24 horas para Madalenas y días posteriores (del 21 al 31 de julio). En Errenteria, cero agresiones.**

**SI TE ESTÁ AGOBIANDO, ES AGRESIÓN.**

**NIREKIN EROSO BAI**

**SÍ CUENTA CONMIGO**

**650 407 858**

**24H MADALENETAN**